

# Osoko bilkura

Bilbon, 2014ko martxoaren 28an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Videgain, Xarles, buruordea,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Aleman, Sagrario, diruzaina,  
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,  
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,  
Goenaga, Patxi,  
Iñigo, Andres,  
Kaltzakorta, Jabier,  
Lakarra, Joseba,  
Oihartzabal, Beñat,  
Oñederra, Miren Lourdes,  
Peillen, Txomin,  
Sagarna, Andoni,  
Toledo, Ana,  
Torrealdai, Joan Mari,  
Uribarren, Patxi eta  
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso,  
Osa, Erramun eta  
Zabaleta, Joseba,  
zegozkien gaitan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Aurelia Ar-  
kotxak ahala Joan Mari Torrealdairi;

Jose Irazu «B. Atxaga»-k ahala Andres  
Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala An-  
dres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala  
Andres Urrutiari

Batzarra Bilbon, Euskaltzaindiaren  
egoitzan goizeko 09:30ean hasi da, ez-  
kerreko zutabearen ageri diren euskal-  
tzainak bertan direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskal-  
tzain guztiak agurtu eta etorririkoan  
zerrenda eta ahalak irakurri ditu. On-  
doren, quoruma badela egiaztatuta,  
Euskaltzaindiaren martxoko Osoko ba-  
tzarrari hasiera eman zaio.

Hasteko, Osoko bilkuraren ostean, eus-  
kaltzain urgazle berriei diploma eta ikurra  
emateko 12:00etan egingo den Ageriko  
bilkuraren xehetasunak azaldu ditu idaz-  
kariordeak. Kantak eta musika, Euskal-  
tzaindiko idazkariaren eta euskaltzainbu-  
ruaren hitzaldi bana barruratzen ditu  
ekitaldiak. Diplomak eta ikurrak emateari  
dagokionez, batzordeburu, taldekide eta  
zuzendaritzako kideek emanen dituzte.

Eguneko egitaraua aurkeztu ostean, aztergaiak jorratzeari ekin zaio Osoko bilkuran.

**1. Osoko bilkurako (2014-02-28) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.**

M. L. Oñederrak 4. orrialdeko 6. puntuko lehen paragrafoan, Euskaltzaindiaren 2014. urteko aurrekontuei oharrak-eta egin dizkieten euskaltzainen izenak parentesien artean jasotzeko proposatu du. Halaxe egitea onartu da Osoko bilkuran.

J.-B. Battittu Coyosek 5. orrialdeko 7. puntuan (esku artekoak) berak paraturiko liburuaren izenburua ez dela zuzen jaso nabarmendu du. Ondorioz, zuzentzea erabaki da.

Bestelako oharrak egon ez denez gero, egin zaizkion bi oharrak txertatu ondoren, bilera-agiria onartu da.

**2. Batzordeetako, lantaldeetako, egitasmoetako eta zerbitzuetako 2013. urteko errendapenak eta 2014. urteko planak aurkeztu.**

Idazkariordeak jasotako errendapenak aurkeztu ditu. Herri Literatura batzordearena falta dela ere adierazi du. Urteko planak egiteko baliatzen den fitxa erabili da errendapenak egiteko. Fitxa honetan, batzorde, lantalde edo egitasmo bakoitzaren azalpen laburra, bakoitzean ari diren kideak, bai eta egindakoak eta adierazleak edo lorturiko emaitzak ere jasotzen dira. Zerbitzuei dagokionez, aurten egin da hauei buruzko errendapen-fitxa, lehenbiziko aldiz.

Plangintzari dagokionez, batzordeek, lantaldeek, egitasmoek eta zerbitzuek aurkezturiko urteko egitasmoak azaldu dira, bai eta horietan jardungo dutenen izenak jaso ere, XVIII. Barne Jardunaldien ondoren berrituriko Aurkitegiaren arabera. Plangintzei dagokienez, Herri Literatura batzordearen, Gramatika batzordearen eta *Euskara Batuaren Eskuliburua* egitasmoaren urteko planak aurkeztea falta da. Azkeneko biek ez dute eduki asti nahikorik planak hezurramitzeko. Ondorioz, maiatzeko Osoko bilkuran aurkeztea aurreikusi da.

Aurkezturiko txostenek orrialde asko dituztenez gero, euskaltzainei euskarri elektronikoa eskuratuko zaizkie, errazago begiratzeko modua izan dezaten. Paper euskarrian ere bidaliko zaizkie, hala eskatzen duten euskaltzainei.

Argibideak eskatzeko edo proposamenak egiteko aldia maiatzaren 12an, astelehenan, amaitzea erabaki da Osoko bilkuran. Idazkariordeak, bidaltzen direnak ahalik ondoen ordenatzeko eta egin beharrekoak errazteko, orrialdea azpimarratzea eta oharrak edo proposamenak aparteko dokumentu batean bidaltzea ere eskatu du.

### 3. Exonomastika.

#### 3.1. «Antzinateko pertsona-izenak I, II eta III». Jasotako oharrak eta iruzkinak aurkeztu, eztabaidatu eta erabaki, hala badagokio.

Euskaltzainburuaren ausentziaz, X. Videgain buruordeak Alfontso Mujika agurtu du. Beronek X. Kintanagandik jasoriko oharrak azaldu ditu, pertsona historiko batzuen izenen grezierazko ohiko egokitzapenekin batera, horiexen jatorrizko hizkuntzaren transkripzioa ere jartzeko, Europako kultur hizkuntza gehienetan egiten den bezala, euskara arlo horretan desfasaturik gera ez dadin. Ontzat eman dira.

A. Iñigok izen mota ezberdinak zerrendetan jartzeko moduz ohar bat egin du ahoz, toponimiarako erabiltzen den irizpide berbera historia arloko izenekin ere erabil dadin, koherentziaz jokatzeko. Horrela egitea onartu da, hots, bietan berdin jokatzea.

#### 3.2. «Bibliako pertsona-izenak».

Aurkeztea besterik ez denez gero, «Esku artekoetan» aurreikusitako *Bibliako pertsona-izenak* araugaia puntu honetan aurkez dadin erabaki da.

A. Mujikak azaldu du horko zerrendak eratzeko nolako materialaz baliatu den: Bibliaren orain arteko euskal itzulpenez, euskarazko Historia Santu eta erlijio-liburuez etab. Orain arte Euskaltzaindiak onartu eta argitaraturiko pertsona-izenen zerrendak ere gogoan izan dira, kontraesanak saihesteko. Izen bakan batzuetan gertatzen diren bikoiztasunak ere (Josue/Jesus, Juda/Judas, Joanes, Joan...) seinaltatu ditu, beste hizkuntzetan ere holakorik izaten dela gogoratuz, eta bikoiztasun horietarako irtenbideak ere aipatu ditu.

Oharrak maiatzaren 12rako bidaltzea erabaki da.

### 4. Baionako Osoko bilkuran abiaturiko gogoetaldia.

Pello Salaburu, Jesus Mari Makazaga, Iñaki Amundarain, Miren Azkarate, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Patxi Goenaga, Alan King, Itziar Laka, Céline Mounole, Jose Antonio Mujika eta Beñat Oiartzabal Gramatika batzordekideek 2014ko martxoaren 14an idatzi bat erregistratu dute Euskaltzaindiaren Erregistro orokorrean. Idatzi honetan 2013ko abenduaren 2an sinaturiko dimisio-gutunean jasotakoa gogorarazi dute («Dena dela, baldin aurrerantzean Gramatika Batzordearen lan egiteko modua errespetatzen bada, beti egin izan den gisan, prest egongo gara erraza izan ez den erabaki hau berriz aztertzeko») eta Euskaltzaindiak Gramatika batzordearen hasierako proposamena (hau da, gramatika handia eta txikia, biak, ba-

tzordeak egitea), eta hura betetzeko baldintzak, onartu dituela iritzita, dimisioa erretiratzen dutela jakinarazi dute.

Idatzi honen kopia bana banatu zaie euskaltzainei.

## 5. Esku artekoak

**5.1. Euskaltzaindiaren ikertzailearen estatutua aurkeztu.** 2014ko otsailaren 28an Donostian eginiko Osoko bilkuran onarturiko aurrekontuetan (11. orrialdea) jasotakoa betetzeko asmoz, Zuzendaritzak Euskaltzaindian ikertzailearen figura arautzeko proposamena prestatu du. Langileen ordezkarietara ere esan zaie berau proposatzeko asmoa zuela Osoko bilkuran. Gaur aurkeztu den txostena behin-behinekoa da eta hobetua izan dadin aurkezten da, irekita dago-eta ekarpenak jasotzeko. Beronekin ikertzaile profesionaleri aukera bat eman nahi zaie, bizimodu duin eta iraunkorra eskaintzeko Euskaltzaindiaren barruan.

B. Oihartzabalek esan du langileekin kontatzea komeni dela. Hori egitea ezinbestekoa dela erantzun zaio. Nolanahi ere, estatutuak lehendabizi Osoko bilkuran oniritzia jaso behar du, gero langileekin hitz egin ahal izateko. Zuzendaritzak hala uste du. Izan ere, esku artean dagoena zirriborro bat da, ekarpenetara-eta irekia. Era berean, P. Zabaletak esan du estatutu hau onartuz gero, honen arabera jardun nahi dutenei hala aritzea nahi duten galdetuko zaiela.

P. Goenagak galdetu du ea ikerketan aritu nahi dutenek estatutu horretara biltzea derrigorrezkoa izango ote duten. A. Urrutia euskaltzainburuak irekita dagoen marko bat dela berriz azpimarratu du eta ikertzaileek, erabakitzen den markoaren barruan jardutea, aukerakoa izango dutela nabarmendu. X. Videgainek, bere aldetik, galdetu du ea euskaltzain osoak ere ikertzaile izan daitezkeen. Euskaltzainei estatutu horren barruan beste eginkizun bat ematen zaiela eta, horren arabera, Akademiaren ikerketa lanetan, aritu daitezkeela adierazi da.

Iruzkinak eta oharra aurkezteko azken eguna maiatzaren 12a izatea erabaki da Osoko bilkuran.

**5.2. Ohorezko euskaltzainak proposatzeko aldia irekitzea.** Euskaltzainburuak Arautegia eta Barne-erregelak kontuan hartuz, ohorezko euskaltzainak izendatzeko asmoz, Zuzendaritzaren proposamena aurkeztu du. Jarraitu beharreko prozedurari dagokionez, gogorarazi du Arautegiaren 39. artikulua dioena, hots: «Euskaltzain ohorezkoen mailan sartuko dira Euskaltzaindiaren ustetan euskarari mesede bikainak egindako lagunak. Izendatuak izateko, izkribuzko proposamendua behar da, nahiz Zuzendaritzak nahiz bi euskaltzain osok egina, eta Batzarrean onartzea».

M. L. Oñederrak galdetu du urgazle berriak noiz izendatuko diren. Ohorezko euskaltzainak izendatu ostean, prozesu horri ekingo zaiola erantzun zaio.

A. Iñigok zenbat izendatuko diren ere jakin nahi luke. A. Urrutiak ez lirakeela gehiegi izan behar pentsatzen du. P. Uribarrenek uste du, ohorezkoak izendatzeko epea atzeratuz joan denez, gehiago izenda litezkeela.

Proposamenak egiteko azken eguna: maiatzaren 12a, astelehena, izatea erabaki da.

**5.3. BBK-k Euskaltzaindiari laguntza eman.** BBK-ren Gizarte-ekintzak Hiztegi Batuko lantaldearen 2014. urteko lanak aurrera eramateko, 50.000 euroko laguntza eman dio Euskaltzaindiari. Horri dagokionez, gogora ekarri behar da aurreko Osoko bilkuran, 2014. urteko aurrekontuetan onarturiko irizpidea (8. orrialdea): «Hiztegi Batuko lantaldea: -50.646,08 euro. Lantaldearen lana urtean zehar geratu denez gero, oraingoz, bilera bat prestatzeko aurrekontua esleitu zaio (10.000 euro): Zuzendaritzak lantaldearen aurrekontu osoa lortzeko gogoa eta asmoa du hurrengo hilabeteotan». Beraz, Zuzendaritzak harturiko konpromisoa betetzen saiatu da eta ekarpen hori lortu du, BBK-ren aldetik.

**5.4. Jose Antonio Retolaza ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri.** Martxoaren 12an, Jose Antonio Retolaza *Kili-kili* pertsonaiaren eta izen bereko aldizkariaren sortzaile, euskararen aldeko ekintzaile eta ohorezko euskaltzaina hil zen Bilbon, 84 urte zituela. Hilberri txostena, Luis Baraiazarra Txertudi ohorezko euskaltzainak paratzea proposatzen du Zuzendaritzak, 2014ko martxoaren 24an eginiko bilkuran.

Zuzendaritzak eginiko proposamena ondo ikusi da Osoko bilkuran.

**5.5. Eusko Ikaskuntzaren eta Laboral Kutxaren Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria.** Sari honetarako hautagaiak aurkezteko epea aurtengo apirilaren 30ean amaitzen dela gogorarazi da. Hortaz, Zuzendaritzak 2014ko martxoaren 19an eginiko bilkuran, Jean-Baptiste Orpustan jauna, ohorezko euskaltzaina, proposatzea erabaki du. Ontzat eman da.

**5.6. Euskaltzaindiaren eta Sabino Arana Fundazioaren artean lankidetzahitzarmena izenpetu da, martxoaren 20an.** Elkarlana euskararen normalizaziorako eta euskal kulturaren zabalpenerako proposatuko diren egitasmoen inguruan gauzatuko da. Egitasmo hauetan, Euskaltzaindiak euskararen arloan ezarritako arauak eta proposaturiko gomendioak zabaltzeko konpromisoa hartzen dute bi erakundeok. Hitzarmen honen ondorioz, Euskaltzaindiak garatzen diharduen *Lexikoa-*

ren *Behatokia* egitasmoa elikatzeko asmoz, Sabino Arana Fundazioak argitaraturiko euskarazko testu-masa osoa Akademiaren eskuetan jarriko du.

**5.7. Euskaltzaindiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko urteko lankidetzaren hitzarmena.** Era berean, Akademiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko 2014ko lankidetzaren hitzarmena apirilaren 8an izenpetuko dela jakinarazi da.

**5.8. Banatuko diren liburuak.** Aurreko Osoko bilkuran geratu bezala, Jean-Baptiste «Battitu» Coyosek paraturiko *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri* liburua banatuko da Ageriko bilkuraren ostean.

**5.9. Hurrengo Osoko bilkura.** Onarturiko urteko egutegiaren arabera, apirilean ez dago Osoko bilkurarik. Hurrengo Osoko bilkura Donostian egingo da, maiatzaren 30ean, ostiralean, Foru Jauregian, goizeko 10:00etan.

Edonola ere den, apirilaren 21ean Saran egingo den liburu-azokan Euskaltzaindiak hiru liburu aurkeztuko ditu: J. B. Coyos-en *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri*; Ernest Daudet-en *Amodioaren martirra*, Elizetxek euskarara itzulia eta Xabier Altzibarrek paraturiko edizioa eta P. Charrittonen *Le fondement moral des droits culturels de l'homme - Kultura-eskubideen oinarri etikoak*.

## 6. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta besterik ez dela, 11:40an Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urutiaga,  
idazkaria

# Ageriko bilkura

Bilbon, 2014ko martxoaren 28an

Euskaltzain urgazle berriei diploma eta ikurra emateko,  
Ageriko bilkura

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, eguerdiko 12:00etan, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, 2013ko otsailaren 22ko Osoko bilkuran euskaltzain urgazle izendatu zirenei diploma eta Akademiaren ikurra emateko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xarles Videgain buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste «Battittu» Coyos Jagon sailburua, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Joseba Lakarra, Miren Lourdes Oñederra, Beñat Oihartzabal, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren eta Patxi Zabaleta.

Luis Baraiazarra ohorezko euskaltzaina.

Euskaltzain urgazleak: Dorleta Alberdi, Kepa Altonaga, Rikardo Badiola, Pruden Gartzia, Sebas Gartzia, Mikel Gorrotxategi, Jacinto Iturbe, Alfontso Mujika eta Manuel Maria Ruiz Urrestarazu.

Diploma eta ikurra gaur jaso duten euskaltzain urgazle berriak: Kaxildo Alkorta, Iñaki Amundarain, Nagore Etxebarria, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Antton Gurrutxaga, Patxi Juaristi, Gerardo Luzuriaga, Elena Martinez de Madina, Felix Mugurutza, Manu Ormazabal, Erramun Osa eta Iratxe Retolaza. Iñaki Aldekoak ezin etorria adierazi du.

Erramun Osa idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Euskaltzaindikoko langileak: Lutxi Alberdi eta Amaia Okariz.

*Euskera*. 2014, 59, 1. 246-248. Bilbo  
ISSN 0210-1564

2005. urtetik, gutxienez, Euskaltzaindiko batzorde eta lantaldeetan ari diren hamalau euskaltzain berri izendatu zituen Euskaltzaindiak 2013ko otsailaren 22ko Osoko bilkuran, eta horietatik hamahiru izan dira gaurko ekitaldian. Aldekoaz gain, hauek dira izendatuak: Kaxildo Alkorta, Iñaki Amundarain, Nagore Etxebarria, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Antton Gurrutxaga, Patxi Juaristi, Gerardo Luzuriaga, Elena Martinez de Madina, Felix Mugurutzaga, Manu Ormazabal, Erramun Osa eta Iratxe Retolaza.

Ekitaldian zehar, musika izan dute lagun bertaratutakoek. Izan ere, Pier Paul Berzaitz eta Joxan Goikoetxea musikariek hartu dute parte omenaldian eta Nemesio Etxanizek, Piarres Topet «Etxahun»ek edota Xabier Letek idatziriko poema musikatuak interpretatu dituzte.

Lehenbiziko kanta entzun ostean, ekitaldia gidatu duen Dorleta Alberdi euskaltzain urgazleak eta kazetariak hitza Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkariari eman dio. Honek, honakoa esan die urgazle berriei: «Katea ez da eten, gogoratzen zigun Koldo Mitxelena maisuak. Horrela, gaurko euskaltzainon kezka eta ahaleginak ez dira gurekin amaituko. Euskal Herriko hizkuntza nazionala, euskara, konserbatzeko, zaharberritzeko, denbora eta zeregin berrietarako egokitzeko ardua hori, zuengana pasatuko da, bidean izan ditzakegun arazoak guztion artean aztertu, kritikatu eta ahalik eta egokien konpontzeko».

Euskaltzaindiko idazkariaren mintzaldiaren ondoren, euskaltzain urgazle berriei diploma eta ikurra eman zaizkie, eta Akademiako Zuzendaritzako eta batzorde eta lantaldeetako kideek jardun dute zeregin horretan. Diplomak aldean esaldi hau jasotzen du: «Euskaltzaindiak euskararen alde orain arte egin dituen lanen eskererakutsiz eta gerokoen pizgarri, urgazletzat hartu du».

Segidan, Andres Urrutia euskaltzainburuak hitza hartu du eta hauxe esan du: «Ohorerako baino, lanean jarraitzeko deia duzue hau. Begien bistakoa da eta horretan ari garela azken urte hauetan, uste baitugu Euskaltzaindiak bere atea ireki behar dizkiela euskararen arloan egunotan bizien dabilzan sektoreei. Hor ari zarete zuek ere, andrazko zein gizonezko, idazletzan, kazetaritzan, zientzian, teknikan, administrazioan, irakaskuntzan, ikerketan eta bestelakoetan. Hortxe eta Akademian ere nahi zaituzte Euskaltzaindiak, euskara eguneratu baten eskakizun eta premiei erantzun egokia emanez».

«Akademiak –gaineratu du Urrutiak– badaki zer den lan hori eta berori barruratu nahi du, aukera emanez belaunaldi berriei, parte har dezaten Euskaltzaindiaren zereginetan. Euskaltzaindiak euskaltzain urgazleak aintzat hartu, lanean jarri eta

baliatu behar ditu. Lehen ere hala egin du, eta hurrengoetan ere hala egin beharko du, bere egitekoa ondo bete nahi baldin badu. Beharrezkoak dira baliabide eta tresna berriak».

Ekitaldia bukatzeko, hurreratutako guztiak zutik jarri eta Agur Jaunak kanta abestu dute, ekitaldiari amaiera emanez, eguerdiko 13:00etan.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,  
idazkaria